

BACHICABO

– ARABA / ÁLAVA –

Batxikabo herria Gaubea udalerrian dago, Burgosko mugatik hurbil, Artzena mendilerroak mugaturik. Miranda de Ebrotik 19 km-ra eta Gasteiztik 51 km-ra dago, Espejo eta Bergonda herrien artean.

Testuen arabera, XI. mendearen hasieran jaun- aristokrazia zegoen lurraldean, eta tokiko nobleek burutzen zuten komunitateen gaineko aristokrazia-kontrola. Halaxe, Oveco Díaz jaunak eskubide eta jabetza ugari zituen lur hauetan, Batxikabo herrixka eta San Martín monasterioa ere tartean, 1028ko data duen salerosketa-agiri batek dioenez.

1146an Espejoko Kontzejuari Cerezoko Forua esleitzeko dokumentuan ere azaltzen da Batxikabo, Gaubeako beste herrixka batzuekin batera. 1463an, Rivabellosako Ordenantzetan ageri da harana, inguruetako hainbat hiribildu, kanpoko mehatxuetatik hobeto babestearren, elkartzearen zioz.

XIII. mendearen amaierarako, Arabako Ermandade Nagusiaren barruan zegoen jada Gaubea harana, baina 1503ra arte ez zen Arabako probintzian sartu, ondorio guztietarako. Mende batzuk geroago, XVI. mendean, Gaubea haraneko administrazio judizialeko sistema Alkate Nagusiek artez- ten zuten, nahiz eta Enrike III. arengandik Gaubea Haraneko Jaun titulua hartua zuten Velascotarren leinuak eragin eta botere handiak zituen.

La localidad de Bachicabo se encuentra entre los valles de Valdegovía, cerca del límite con la provincia de Burgos, demarcada por la Sierra de Arcena. Dista 19 km de Miranda de Ebro y 51 km de Vitoria-Gasteiz. Se sitúa entre los pueblos de Espejo y Bergüenda.

Desde principios del siglo XI, los textos hacen referencia a la existencia de una aristocracia señorial que se asentaba en estos territorios. El control de la aristocracia sobre las comunidades era ejercido por nobles locales. Es el caso del señor Oveco Díaz, que disponía numerosos derechos y propiedades en estas tierras. Entre sus posesiones se encontraban la aldea de Bachicabo y el monasterio de San Martín, según un documento de compraventa fechado en 1028.

En 1146 aparece Bachicabo, junto con otras aldeas de Valdegovía, en la asignación del Fuero de Cerezo al Concejo de Espejo. En 1463, el mismo valle figuraba en las Ordenanzas de Rivabellosa, bajo la que se unieron varias villas de los alrededores para conseguir mayor protección frente a las amenazas externas.

A finales del siglo XIII ya pertenecía a la Hermandad General de Álava, pero no fue hasta 1503 cuando entraría a formar parte de la provincia de Álava a todos los efectos. Siglos más tarde, en el XVI, el sistema de administración judicial en el Valle de Valdegovía se regía por los Alcaldes Mayores, pese la influencia y poder del linaje de los Velasco, que gozaban del título de Señores del Valle de Valdegovía por concesión de Enrique III.

San Martín eliza / Iglesia de San Martín

GAURKO GARAIRA heldu diren idatzizko iturrien arabera, eliza, hasieran, monasterio izateko eraiki omen zen. Gaur egun, ordea, parroquia-eliza da. Oinplano angeluzuzeneko harlangaitzezko fabrikaren gainean altxatzen da, eta portadan baino ez ditu hare-harrizko silarriak. Portada, izan ere, geroago erantsi zitzaion, Errenazimentuko molde apal eta soilari jarraikiz. Eraikinaren garaiera eta zabalera handiek, kontrahormek

SEGÚN LAS FUENTES escritas que han llegado a nuestros días, parece que esta iglesia se fundó en primer lugar como monasterio. Hoy, sin embargo, ha llegado a nuestros días como iglesia parroquial. Se presenta sobre una planta rectangular de fábrica de mampostería, con sillares de piedra arenisca solamente en su portada. Ésta, añadida posteriormente, es de corte renacentista, muy sencilla y austera. El edificio destaca por su altura y sus



*Leibatea biru buru
berrerabiliek*

*Ventanal con las
tres cabezas reutilizadas*

eta hormetako bao urriek gotorleku-eliza izan zela pentsarazten digute.

Leiho txaranbelduak –estilo errenazentistakoak horiek ere– erdi-puntuko bi arkuteria estuk eta horien gaineko lobulutxoak itxuratzen dituzte. Arkuteria batean, hasierako apaindura erromanikoaren lekuko bide diren hiru buruk osaturiko apaingarri figuratiboa ikusten da. Buruok leihaterearen gainean eta, behean, bi aldeetan ageri dira. Oso hazpegi zurruneko buruak dira, taxu erromanikoari dagokion erakoak, eta nahiko higaturik daude. Portadaren gainean, beste leihate errenazentista bat dago.

Gainerako bao txikiak askoz sinpleagoak dira. Parrokia-elizaren eraikuntzak Arabako herri honen hainbat une eta historiaren xehetasun ugari islatzen ditu. Estalkiaren azpian, gargola modura, zehaztu ezin diren animalia-moti-

dimensiones, acordes con la torre campanario. Por su gran altura, los contrafuertes y los escasos vanos en los muros, podríamos imaginar que se trata de una iglesia fortaleza.

Las ventanas abocinadas, también de estilo renacentista, están formadas por dos estrechas arcadas de medio punto y un pequeño lóbulo sobre éstas. Una de ellas se complementa con una decoración figurativa, compuesta por tres cabezas que parecen ser testimonio de la antigua ornamentación románica. Están dispuestas sobre el ventanal y en la parte baja a ambos lados. Se trata de cabezas con rasgos muy rígidos, según las características románicas, y bastante erosionadas. Sobre la portada encontramos otro ventanal también renacentista.

El resto de pequeños vanos son mucho más sencillos. A través de la lectura constructiva de esta iglesia parroquial



Buruetako bateko xebetasuna

Detalle de una de las cabezas

boak irudikatzen dituzten hiru harburu nabarmentzen dira, oso lorrindurik badaude ere.

Elizaren barruan, Andre Mariaren irudi bat dago, deitura zehatzik gabekoa, eta oso egoera txarrean; G. López de Guereñuk dioenez, baliteke Ballanesko Ama Birjina izatea. Erretaulan, Van Dyck margolariaren eskolako zirku-luak egindakotzat hartzen den eta elizaren zaindaria, San Martín, erakusten duen koadro ospetsua –duela gutxi zaharberritua– zegoen.

Testua eta argazkiak: JCE/MLAI

podrían observarse los distintos momentos y la historia de esta localidad alavesa aquí reflejados. Bajo la cubierta hay tres canecillos, que sobresalen a modo de gárgolas muy deterioradas, que representan motivos animalísticos de difícil definición.

En su interior se encuentra una imagen mariana sin especial advocación, muy mal conservada, que quizá corresponda a Nuestra Señora de Ballanes, como apunta G. López de Guereñu. En su retablo se hallaba el famoso cuadro atribuido al círculo de la escuela de Van Dyck, restaurado recientemente y que representa al santo patrón de esta iglesia: San Martín.

Texto y fotos: JCE/MLAI

Bibliografía / Bibliografía

LÓPEZ DE GUEREÑU, G., 1962, p. 363; PORTILLA VITORIA, M. J., 1983, p. 42; RUIZ DE LOIZAGA, S., 1982, p. 169.